

BESTELAKO XEDAPENAK

SEGURTASUN SAILA

5994

EBAZPENA, 2021eko azaroaren 19koa, Segurtasuneko sailburuordearena, zeinaren bidez dirulaguntzak ematen baitzaizkie irabazi-asmorik gabeko erakundeei joko patologikoari buruzko informazio eta prebentzio unibertsaleko jarduerak egiteko.

Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuaren 2021eko uztailaren 29ko Aginduak EAeko irabazi-asmorik gabeko erakundeei joko patologikoari buruzko informazio eta prebentzio unibertsaleko jarduerak egiteko dirulaguntzak emateko araubidea erregulatzen du (2021eko irailaren 8ko EHAA, 179. zk).

Agindu horren 11. artikuluekin bat etorritz, eta Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren Balorazio Batzordearen txostena ikusita, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Eranskinean aipatzen diren eskatzaileei bertan zehazten diren dirulaguntzak ematea.

Bigarrena.– Ebazpen hau erakunde interesdun guztiei jakinaraztea.

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beronen aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsua aurkez diezaioke Segurtasuneko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpen hau berariaz jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritz.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko azaroaren 19a.

Segurtasuneko sailburuordea,
JESÚS MARÍA ZUBIAGA NIEVA.

2021eko azaroaren 26a, ostirala

ERANSKINA

ESKAEREN, PUNTUEN ETA EMANDAKO DIRULAGUNTZEN ZERRENDA

Erakundea eta Proiektua	Puntuak	Dirulaguntza
Fundación Etorkintza Taller de prevención de juegos de azar y las apuestas deportivas entre adolescentes y jóvenes.	100	9.166
Asajer Cuando jugamos en la red todo es más rápido	100	7.554
Fundación Jeiki Hay mucho en juego	100	6.373
Fundación Gizakia Acepta el reto.	100	15.000
Kiribil sarea Jokoan sartuko zara?	100	15.000
Asociación para el fomento del uso saludable de las tecnologías (Pantallas amigas) Guía para la mediación parental frente al uso abusivo de videojuegos.	63	3.900
Asociación para el fomento del uso saludable de las tecnologías (Pantallas amigas) Servicio de información, asesoramiento y atención temprana.	63	6.008
Asociación Susterra Euro bat	53	8.984
Izan Fundazioa Proyecto de información y prevención del juego patológico.	45	16.239